

# Kalkulu adibidea

## ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA

Zergaduna 1960ko abuztuaren 24an jaio zen, eta ezkongabea da. Gaur egun Donostian bizi da, eta datu hauek aurkeztu ditu Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga aitortzeko:

Ondare hau dauka (2012 eta 2013ko abenduaren 31n ondasun, eskubide eta zorrek (balorazio bera dutela jo da):

- o Pisu bat Donostian, bere ohiko etxebizitza dena. Etxebizitza 108.182,18 eurotan erosi zuen. Balio katastrala 140.802,42 eurokoa da.
- o Malagan kokaturik dagoen apartamentu baten herenaren titularra da. Higiezinagatik 36.060,73 euroko prezioa ordaindu zen guztira. Administrazioak egiaztatutako balioa, berriz, 180.303,63 eurokoa da.
- o Madrilen kokatuta dagoen ondasun higiezin baten titularra da. 103.328,23 euroko prezioa ordaindu zuen. Bakio katastrala 96.161,94 eurokoa da.
- o Jarduera enpresarial baten titularra da, eta bertako kontabilitatea eramaten du Merkataritza Kodeari egokitua. Hobaria aplikatzeko baldintzak ez ditu betetzen. Abenduaren 31ko balantzea ondorengo hau izan da:

AKTIBOA		PASIBOA	
Kutxa eta bankuak	12.020,24	Hornitzaileak	12.020,24
Izakinak	18.030,36	Maileguak	24.040,48
Bezeroak	12.020,24	Kapitala	60.101,21
Eraikinak	54.091,09	Erreserbak	30.050,61
Makineria	36.060,73	Galera-irabaziak	18.030,36
Ibilgailuak	12.020,24		
GUZTIRA	144.242,90	GUZTIRA	144.242,90

Balantzearen barruan, jarduera enpresarialari lotutako ondasun higiezin bat sartuta dago, balio hauek dituen:

Balio katastrala	66.111,33
Balio egiaztatua	66.111,33
Eskurape balioa	72.121,45
Kontabilitate balioa ondasunen aktiboan	54.091,09

- o Diru-etxe batean honako hauek ere ditu:
  1. 0136527 zk.dun kontu korrontea, datu hauek dituen:
    - Abenduaren 31ko saldoa: 3.005,06 euro.
    - Batez besteko saldoa urteko azken hiruhilekoan: 3.155,31 euro.
  2. Epe finkorako gordailua, datu hauek dituen:
    - Abenduaren 31ko saldoa: 60.101,21 euro.
    - Batez besteko saldoa urteko azken hiruhilekoan: 55.593,62 euro.
- o 1.000 akzio ditu burtsan kotizatzen duen X sozietatean. Azken hiruhilekoan titulu horien batez besteko kotizazioa 30.050,00 eurokoa izan zen.
- o Ekitaldian zehar DIRUFONDO FIAMM inbertsio fondoan 10 partaidetza erosi zituen. Abenduaren 31n horietako bakoitzaren likidazio balioa 4.808,10 eurokoa izan zen.
- o Beta SA sozietatean 50 akzio ditu. Sozietate horrek ez du burtsan kotizatzen eta bere azken balantzeari ez zaio auditoretzarik egin. Balio unitarioak ondorengo hauek dira:
  - Balio nominala: 0,60 euros.

- Balio teorikoa onartutako azken blantzearen ondorioz: 0,66 euros.
  - Azken hiru ekitaldi sozialetako mozkinen batez bestekoa %20an kapitalizatuz izandako balioa: 0,63 euro/akzioko.
- ALFA entitatearekin bizi aseguru bat egina du. Polizaren zenbakia 999.999 da, eta bere erreskate balioa 120.202,42 eurokoa da abenduaren 31n.
  - Hainbat arte-gai dauzka, abenduaren 31n 300.506,05 euroko prezioa dutenak merkatuan.
  - Banco de Santander diru-etxeari eskatutako mailegua dela-eta, abenduaren 31n 18.030,36 euroko zorra duela frogatu du.

AUTOLIKIDAZIOA	2012	2013
Ondasun higiezinak	163.429,44	163.429,44
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Donostiako ohiko etxebizitza</li> <li>• Beste ondaun higiezin hiritarrak: Malagako apartamentua: 180.303,63 / 3 = 60.101,2 Madrilgo pisua 103.328,23</li> </ul>	Salbuetsia  60.101,21 103.328,23 ----- 163.429,44	Salbuetsia  60.101,21 103.328,23 ----- 163.429,44
Jarduera ekonomikoa kontabilitatearen arabera	126.212,54	126.212,54
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aktibo erreala: 144.242,90</li> <li>• Pasibo exigigarria: 36.060,72</li> <li>• Diferentzia higiezinaren balorazioan: 18.030,36</li> </ul>	144.242,90 -36.060,72 +18.030,36	144.242,90 -36.060,72 +18.030,36
Gordailua 0136527 zki.ko kontu korrontean	3.155,31	3.155,31
Eperako gordailua	60.101,21	60.101,21
Baloreak burtsan kotizatzen duten entitateen fondoetan parte hartzeagatik:	30.050,00	30.050,00
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1000 akzio X 30,05 = 30.050,00</li> </ul>		
Gainerako baloreak burtsan kotizatzen ez duten edozein entitatearen fondoetan parte hartzeagatik:	48.114,00	48.114,00
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 50 akzio X 0,66 = 33</li> <li>• 10 partaidetza X 4.808,10 = 48.081,00</li> </ul>		
Bizi aseguru	120.202,42	120.202,42
Arte-gaiak	300.506,05	300.506,05
ONDASUN ETA ESKUBIDEEN BALIOA, GUZTIRA	851.770,97	851.770,97
Zorrak	18.030,36	18.030,36
OINARRI EZARGARRIA	833.740,61	833.740,61
MURRIZPENA	700.000,00	700.000,00
OINARRI LIKIDAGARRIA	133.740,61	133.740,61
KUOTA OSOA	267,48	334,35
KUOTA LIKIDOA	267,48	334,35